

Orratzontziko sorgiñak

Buztintza'tar Errose'k eginda, ta Kerexeta'tar Jaime'ren ardurapean argitaratuta.

Lenagoko urteetan, "Bizkarr" basetxean, abade bat bere arrebaategaz bizi zan. Abade arek, bere etxeko kutxa zaar baten, orratzontzi bat ondo gordeta eukiten eban; eta orratzontzi ari iñortxok be egundo ez egiola ikutu, ziarduan beti esaten.

A zala-ta, etxeko ta auzokoak —emakumeak batez be— orratzontzi miragarri aretan zer egon ete-zeitekean, buru-austez baterik egozan.

Egun baten, abadeak bere arrebiari auxe esan eutsan:

—Gaur Urkiola'ra noa, ta etxeko egitekoak ondo egiñaz, ia etxea ondo baiño obeto zaintzen dozun. Kortako abelgorriak be, lantzean bein begiratu egizuz. Eta... kanpoan nazan artean, or kutxa zaarrean gordeta daukadan orratzontziari ez egiozu ikuturik egin, gero... goizetik gabera zoritxar gorriren bat leporatu ez dagizun be. Kontuz!

Eta beste bagarik, abadea Urkiola-ganera joan zan. Eta nebeak atzea emon orduko, arrebea kutxara begira jarri zan, bere kolkorako esaten ebala: "Orratzontzi ori dala-ta, gure nebeak darabizan buru-austeak ez dira txikiak, gero! Orrenbeste ardura ta buru-auste, ¿zer dala-ta, baiña? Urrea, zidarra, ala arri-bitxi dirdiratsuen batzuk ete-dagoz bertan? Ontzi bakan orretan dagoana, berak

nak, gizonek naiz emakumek, etxean zer dagoan jakitea, gauzarik bidezkoena da-ta. Aikomaikoetan beti ibilteke (ibilli bagarik), kutxa zaar ori giltz aundi oneaz edegi be egingo neuke... ta bertan zer dagoan ikusi be bai. Baiña, baiña... gure abadea zur-zurra da-ta, jazorikoaren barri, bear-bada, berealaxe jakingo leuke; besterik ezean, zer izan dan igarri egingo leuke-ta... ¿Zer egin? Dana dala, olako buru-austerik geiago ezin igaro daiket nik; nire osasuna zerbait maite ba'dot beintzat, miñutu baten be geiago ezin itxaron daiket'".

Eta ori esanaz, neska jakingureak, kutxa zaarra edegita, orratzontzia eskuan artu eban. Eta orduan izan ziran ziranak, eta jazo ziran jazo ziranak!

Beste bagarik, orratzontzitik sorgiñak taka-taka urtetan asi ziran. Eta "zer eingu ta zer eingu" (1) esanaz, sorgin batzuek neskeari oiñetatik oratu

eutsoen, beste batzuek eskuetatik, eta besteak samara zart egin eutsoen. Orduan, neskea estutu egin zan; eta negarrez asi ta esan eutsen:

—Lan egin gura ba'dozue, zoaze solora, ta beintzako bedarra ekarri egistazue, ba...

Eta sorgiñok, bereala soloratuta, bedar guztiak beingo baten etxeratu ebezan.

biak ekartera solora bialdu bear izan ebazan. Miñutu batzuen barruan, inguruetako arbi guztiak etxeko atartera ekarri ebezan. Eta orduan be, "zer eingu ta zer eingu" esaten asi ziran.

zan; eta bere arrebea negar baten aurkitu eban.

Zer jaso yakon itaundu eutsanean, neskeak erantzun eutsan:



Neska gaisoa, olako esturaldian negarrez eta uluka asi zan, bere inguruan ikotika ebizan sorgiñai zer agindu be ez ekiala. Alako baten, alan bearrez, bere zortionerako gauza bakan bat agintzea otu yakon.

—Orratzontzikoak sakabandatu egin dira... ta orain larri ta barregarri narabille... Ene...!

Eta jazoriko guztia azaldu eutsan. Entzunikoaz, abadea asarratu egin zan, eta betozko illunez esan eutsan:

—Zoaze erre kara —esan eutsen—, eta etxean bear dodan ura galbae onetan ekarri egistazue: gure etxean ur tantarik be ez dago-ta...

—Jakingura petralak alakook!


Orratzontzi orrezaz arduraz ibilteko ez dausut esaten, ba, beti? Zuek lakoakaz, baiña, alperrik da... Eskerrak galbaeaz ura ekarten jarri dozuzalako; bestela, zure galdua!: or zintzazan orratzontzian, eurakaz batera...

Eta sorgiñak, galbaea artuta, joan ziran, eta ur-ekarten zintzo-zintzo asi. Baiña, areik orretarako egiten eben guztia, alper-alperrik zan: artzen eben ur guztia, lau oinkada emon orduko, galbaearen zuloetatik urtenda, lurrera joakien-eta. Barrero be erre kara joan, eta barrero be axe hera jazo yakon: ezelan be urik ezin ekarri.

Gero, abadea, orratzontzia artuta, erre kara joan zan; eta bertan "latiñaro" bat esanda beste bagarik, sorgin guztiak beingo baten orratzontzian sartu ziran, kanpoko argitan bat bera be gelditzen ez zala.

Orretan ziarduela, abadea, Urkiola-ganean eguna ederto igarota, tapa-tapa etxean sartu

Arrezkero, abadearen arreba gaisoak ez eban izan, ez, jakingura okerrik!



bakarrik daki; ori, barriz, olan ez litzake izan bear: etxean zer dagoan, etxeko guztiak jakin bear leuke-ta; etxean bizi da-

Eta barrero be, neskearen inguruan ikotika asita, "zer eingu ta zer eingu" esaten ziarduen. Eta bakea izango ba'zan, ar-

(1) "Zer eingu"="zer egingo dogu".